**OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2016.12.29**

Tolosako Udaletxean, 2016ko abenduaren 29an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 29 de diciembre de 2016, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Ez bertaratutakoak:
Nuria Carbonell Miranda
Ibai Iriarte San Vicente

Behin behineko Idazkaria:
Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

**Eguneko gaia zerrenda**

1. Ondorengo akta onartzea:
   2016ko azaroaren 22ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

**Orden del día**

1. Aprobación de la siguiente acta:

   Sesión ordinaria del 22 de noviembre de 2016.

2. Dar cuenta de los decretos emitidos por

| | |
|---|---|
| | la alcaldía: |
| 2016ko azaroaren 1etik 30era (2016/1.965-2016/2.177). | Del 1 al 30 de noviembre de 2016 (2016/1.965-2016/2.177). |
| 3. Batzarra Tolargiko batzar orokorra eratuta: energia elektrikoaren banaketako elementuak eta instalazioak erosteko aukera gauzatzea. | 3. Pleno constituido en Junta General de Tolargi: Ejercicio de la opción de compra de las instalaciones y elementos de distribución de energía eléctrica. |
| 4. Tolosako Udalaren energia elektrikoaren instalazio eta distribuzio elementuei dagokienez, Tolargik aurkeztutako erosketa aukeraren proposamenaren onarpena. | 4. Aceptación de la opción de compra por parte de Tolargi de las instalaciones y elementos de distribución de energía eléctrica. |
| 5. 2017.urterako taxien tarifen onarpena. | 5. Aprobación de las tarifas de taxi del 2017. |
| 6. Korreo kaleko 27an dagoen eraikina, Iturritza jauregia, zuzeneko erosketa egiteko onarpena. | 6. Aprobación de la adquisición directa del edificio del Palacio Iturritza sito en korreo kalea 27. |
| 7. Udal lursailen kalifikazio juridikoa aldatzea eta haiek banantzeak, Tolosako “Et. 1 Mustad” eremuko EU2an, gaur egungo 24. I urre izenekoan. | 7. Alteración de la Calificación Jurídica y Segregación de terrenos Municipales situados en la UE2 del área Rt. 1 Mustad, hoy 24.Iurre de Tolosa. |
| 8. Euskal Herria plaza, 1- B eraikinean Hotel-jatetxe-katetegi zerbitzuak ezartzeko obra publikoko kontzesio espedientea. Hotelari dagokion lote esleitzea. | 8. Concesión de Obra pública para la implantación de los servicios de restaurante-cafetería-hotel en el edificio 1B de Euskal Herria plaza. Adjudicación del lote correspondiente al Hotel. |
| 9. 2017ko aurrekontu orokorraren onarpena. | 9. Aprobación del presupuesto generañ para el año 2017. |
| 10. Erabateko edo/eta aldi baterako dedikazioz aritu behar dutenen Korporazioko partaideen ordainsariak xedatzea. | 10. Régimen retributivo y dedicación de los miembros de la Corporación con dedicación exclusiva y/o parcial. |
| 11. Elikagaien bankuarekin eta kontsumorako egokiak diren baina salmentarako baztertuta dauden elikagaien loturiko mozioa | 11. Moción relativa al Banco de Alimentos y al aprovechamiento de alimentos aptos para el consumo y descartados para la venta. |
| 12. Poliomilitisak jota izan ziren eta gaur egun ondorio berantiar edo post-polio sindromea (PPS), jasatzen ari diren lagunentzat sostengu mozioa. | 12. Moción de apoyo a las personas que fueron afectadas por la Poliomielitis y hoy están padeciendo los Efectos Tardíos y Síndrome Postpolio (SPP). |
| 13. Manu Azkarateren atxiloketaren aurrean EAJ-PNV eta EHBildu arderdiak aurkeztutako mozioa | 13. Moción presentada por EAJ-PNV y EHBildu en relación a la detención de Manu Azcarate. |
| 14. Galderak eta eskaerak. | 14. Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

Kontutan izanda gai zerrendako 13. gaia eta senitartekoak etorri direla adosten da lehendabizi gai hori tratatzea.

**13. <u>Manu Azkarateren atxiloketaren aurrean EAJ-PNV eta EHBildu arderdiak aurkeztutako mozioa</u>**

**13. <u>Moción presentada por EAJ-PNV y EHBildu en relación a la detención de Manu Azcarate</u>.**

Lehenik eta behin alkateak hitza eman die bertaratu diren senitartekoei. Partehartzea jasotzen duen DVDa espedientean gordetzen da.

Alkateak eskerrak eman dizkie senitartekoei bereziki ez delako erreza izaten senideentzat egoera larri hauetan horrela hitzegitea. Jarraian, hitz eman die zinegotziei alderdi bakoitzak bere iritzia eman dezan:

… Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): mila esker etortzeagatik. Guk bizikidetza, bakea, presoen gerturatzea, normalizazio politikoa eta giza eskubideen errespetuaren alde gaude eta eskubide hauen urrraketaren aurka .Horregatik, mozio honi atxikitzen diogu.

… Peio Etxabe Zabala (EHBildu): “*Orain 5 urte ETAk behin betirako su-etena eta armak uztea erabaki zuenean bake eta normalizaziorako urrats handia eman zela begi-bistakoa da. Urte guzti hauetan euskal gizarteak, eragile sozial eta politikoek ahalegin handiak egin dituzte elkarrizketa, akordioa eta bizikidetza sustatzeko. Garai berriak dira, kartzelak hustu eta kaleak betetzeko garaiak dira. Kaleak bete elkarlanerako, parte hartze sozial eta politikorako, herrigintzarako, askatasunean libre jarduteko. Aldarri hau nagusi da Euskal Herriko bazter guztietan.*
*Baina espainiar eta frantses estatuak beldur dira Euskal Herrian sortzen ari den garai berri horretaz. Ez dute euskal gizartea aurrera begira ikusi nahi. Nahiago dute iraganari loturik edukitzea. Eta horretan presoen gaineko mendekua dute herria gatibu hartzeko bitartekoa. Presoen urrutiratzea, sakabanaketa, preso gaixoen min erantsia, senideen aurkako zigorra, orain bost urte bezain bortitza edo gogorragoa da egun. Bi estatuen jarrerak giza eskubideen erabateko urraketa eta presoek legez onartuak dituzten eskubideen urraketak eragiten ditu. Onartezina da giza ikuspegi eta ikuspegi politikotik egoerak aldaketarik gabe jarraitzea. Estatuen harrokeriak eta inpunitateak ez du neurririk.*
*Bi estatuen artean Manu Azkarateri egindakoa mendeku gerra horren barruan sartzen da: basatikeriaz atxilotu, kartzelatu eta espainieraratu, familia eta gertukoengan ziurgabetasuna eta mina eragin eta kartzelak bete. Manu euskal presoa da, preso gaixoa da eta kalean beharko luke, sano eta libre bizitzeko. Manuren kasua beste askoren artean injustua da. Mina eragiteko espetxeratzea da, maltzurra, mendeku nahia.*
*Jakin badakite preso guzti hauen atzean gizarte oso bat dagoela, kalean aktibo dagoen gizartea, gaur Tolosan, Usurbilen egunero, kartzeletan presoak kaleratze neurriak aztertzen edo urtarrilaren 14an Bilbon kalera aterako den gizartea. Hartzen ari diren mendeku neurri guzti hauekin gizarteari mina hedatzeko helburua dago. Gizartera etsipena zabaldu nahia. Atzera begira gizartea geldiaraztea.*
*Baina ez dugu etsiko eta ez dute lortuko. Badakigu gizartea sendoago eta elkartuago dagoen*

*neurrian zailago izango zaiela bere horretan jarraitzea. Espetxe politika aldatzea, presoak gerturatzea eta etxeratzea bake bidean urrats bat gehiago izan behar du. Gaur ozenki hemendik esan nahi dugu Tolosako Herria ordezkatzen duten indarren gehiengo zabal batek Manuren gerturatzea eta etxeratzea eskatzen dutela eta bide hau da aurrerantzean ere bidea ildo honetan sakontzeko. EHBilduri dagokionean ozen esan nahi dugu gizartearen gehiengo zabalak lotzen ahaleginduko garela aurrerantzean ere, gaur egun urratuak diren eskubideak salatzen eta preso gaixoak lehenengo eta beste guztiak etxeratzea lortu arte. Dei egiten diegu herritar guztiei eta eragileei elkarrizketa, akordio, bizikidetza eta normalizazioa lortzeko bidean presoen gerturatzea eta etxeratzea erdigunean jar dezagun.* “

… Alkatea: “*Adierazpen hau EAJ eta EHBildu alderdien artean adostatutako adierazpen bat da. Guk alde egingo dugu arrazoi hauengatik: Herri Administrazio bezala gizaeskubideak babesteko konpromisoa eta erantzunkizuna izan badugulako. Askotan hitz egiten da politikaz eta politikaz hitz egiten denean, politikak bere oinarrian dituen balioaz. Nik neuk ere horretarako joera handia izaten dut. Eta gaur ozen esan nahi dugu gizaeskubide guztiak errespetatuak izatea dela lehenengo giza balioa, inolako bazterkeriarik gabe. Inolako helburu politiko edo/eta sozialak ez duela jutifikatzen, ez gizaeskubide urraketa, ezta indarkerariaren erabilera bidegabea ere. Podere publikoen betebeharra da gizaeskubideen urraketen biktimen eskubideak errespetatzea, babestea eta gauzatzea, datorren tokitik etorrita. Tolosako udalak badu konpromisoa hartuta Memoriaren berreskurapenarekin, iragan luze eta motzan herri honetan gertatutakoarekin. Indarkeria eta gizaeskubiden urraketekin zer ikusia duten pasadizo guztiekin. Hori guztia helburu jakin: inoiz berriro gertatu ez dadin. ETAren indarkeriarik gabeko gizarte batean bizi gara orain, egoera beraz asko aldatu da. Gizaeskubideen bortxaketaren ondorioak larriak izan dira. Iraganak pisua handia du, bai gaur egungo egoeran eta izango du baita ere etorkizunean. Gaur egun bakea, bizikidetza eta normalizazioa dira lantzen diren gaiak. Bizikidetza hori egoki gauzatzeko pausoak gelditzen dira emateko oraindik. Horretarako, salbuespenezko legeak derogatu beharko lirateke, printzipio legal eta humanitarioetan oinarrituz normaltasun penal eta penitenziarioa berreskuratu beharko litzateke. Era berean, ETAren armagabetze eta desargertze prozesua gauzatzeko baldintzak bilatu. Gainera, aste honetan bertan, presoei espetxe onurak lortzea eta legezko bideetatik gizarteratzeko gaia mahai gaineratuko duela aipatu du Euskalerriko presoen politikoen kolektiboak Hori kontua izanik eta aipatutako arrazoi guzti horiengatik baiezkoa emango diogu mozio honi*.“

- - - - - - - - - -

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

“*Manu Azkareteren atxiloketarena aurrean ondorengoa adierazi nahi dugu:*

- *Elkarrizketa, akordio eta bizikidetza sustatzeko garaiak dira hauek. Zentzu horretan, agente politikoek eta sozialek bizikidetza eta bakearen aldeko espazioak sendotze aldera lan egin dezaten eskatzen dugu.*

- *Badira 5 urte ETAk bere behin betiko su-etena adierazi zuela, baina espainiar zein frantziar estatuek konponbiderako aurrerapausoak eman baino, iraganeko politika eta jarreretan lan egiten dihardute. Bake eta normalizazio politikoa lagundu beharrean prozesu oszopatzen ari dira.*

- *Zentzu horretan, lege antiterroristen baitako inkomunikazio, eta mota horretako*

*neurriek ez dute laguntzen herri honen etorkizun baketsu, normalizatu eta demokratikoa gauzatzen.*

- *Jazarpen, bortxa edota edozein eskubideren urraketen aurka agertzen gara. Horregatik legezko tresna guztiak erabiltzea eskatzen dugu Manu ahalik eta bizkorren gerturatua eta etxeratua izan dadin. Manuren sendiari elkartasuna adierazi nahi diougu.*"

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

1. **Ondorengo akta onartzea: 2016ko azaroaren 22ko Ohizko Osoko bilkurakoa.**

1. **Aprobación de la siguiente acta:**

   **Sesión ordinaria del 22 de noviembre de 2016.**

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

2. **Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

   **2016ko azaroaren 1etik 30era (2016/1.965-2016/2.177).**

2. **Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

   **Del 1 al 30 de noviembre de 2016 (2016/1.965-2016/2.177).**

Alkatetzak 2016ko azaroaren 1etik 30era bitartean (2016/1.965-2016/2.177) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

3. **Batzarra Tolargiko batzar orokorra eratuta: energia elektrikoaren banaketako elementuak eta instalazioak erosteko aukera gauzatzea.**

2007ko abenduaren 31n, TOLARGI, S.L. Pertsona Bakarreko Sozietateak finantza-errentamenduko kontratu bat sinatu zuen Tolosako Udalarekin. Kontratu horri jarraikiz Tolosako Udalak TOLARGI S.L. Pertsona Bakarreko

3. **Pleno constituido en Junta General de Tolargi: Ejercicio de la opción de compra de las instalaciones y elementos de distribución de energía eléctrica.**

Con fecha 31 de diciembre de 2007, TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, suscribió con el Ayuntamiento de Tolosa un contrato de arrendamiento financiero en virtud del cual dicho Ayuntamiento cedía el uso a TOLARGI, S.L., Sociedad

Sozietateari ematen zion energia elektrikoaren banaketako elementu eta instalazioak. Espedientean adierazten dira elementu horiek.

Unipersonal, de las instalaciones y elementos de distribución de energía eléctrica que se relacionan en el expediente.

Finantza-errentamenduko kontratuak 8 urteko indarraldia zuen. Kontratu horren azken kuota 2015eko abenduaren 30ean ordaindu zen, eta egun horretarako aipatutako instalazio eta elementuen eskuratze-kostua erabat amortizatuta zegoen.

El contrato de arrendamiento financiero tenía una vigencia de ocho años. La última cuota del citado contrato se abonó el 30 de diciembre de 2015, habiéndose amortizado íntegramente a dicha fecha el coste de adquisición de las citadas instalaciones y elementos y los correspondientes intereses.

Aipatutako kontratu horren zazpigarren klausulak erosteko aukera-eskubide bat jasotzen du, TOLARGI S.L. Pertsona Bakarreko Sozietatearen alde, lehen azaldutako energia elektrikoa banatzeko elementu eta instalazioen gainean.

La cláusula séptima del referido contrato de arrendamiento financiero recoge un derecho de opción de compra en favor de TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, sobre las instalaciones y elementos de distribución de energía eléctrica antes expuestos.

Prezioari dagokionean, zazpigarren klausula horretan bertan hau adierazten da: «*el precio de compraventa será, el valor residual indicado en el “Desglose de Cartera”*». Azken kuota ordaindutakoan hondar-balioa zero euro denez gero, ulertu behar da elementu eta instalazioak erosteko prezioa ordainduta dagoela aukera-eskubide hau gauzatu aurretik; beraz, ekintza honetan ez da diru-kopururik batere ordaindu behar instalazio eta elementu horiek erosteko aukera-gauzatze horrengatik.

En relación con el precio, en la misma cláusula séptima se señala que «*el precio de compraventa será, el valor residual indicado en el “Desglose de Cartera”*». Toda vez que, con el pago de la última cuota, el valor residual es de cero euros, se considera que el precio por la adquisición de las instalaciones y elementos ha sido abonado con anterioridad al ejercicio de este derecho de opción, de modo que no procede pagar importe alguno en este acto por dicho ejercicio de la opción de compra sobre los mismos.

TOLARGI S.L. Pertsona Bakarreko Sozietateak interesa du lehen aipatutako erosteketa-aukera hori gauzatzeko aipatutako instalazio eta elementuen jabetza osoa eskuratzeko xedez.

TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, está interesada en ejercitar la precitada opción de compra con el fin de adquirir la plena propiedad de las repetidas instalaciones y elementos.

Hori dela-eta, komeni da hau esatea: behin eta berriz aipatzen ari garen elementu eta instalazioak erabilera publikotik kendu zirela eta, Tolosako Udaleko 2008ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuraren erabakiz, beren kalifikazioa aldatu zela, ondare-ondasunen kalifikaziora izatera pasatuz.

A este respecto, conviene señalar que las instalaciones y elementos de continua referencia se desafectaron del uso público y se alteró su calificación por el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, con fecha 14 de marzo de 2008, pasando a tener la condición de bienes patrimoniales.

Beste alde batetik, hau aipatzea ere beharrezkoa da: TOLARGI S.L. Pertsona Bakarreko Sozietatearen xede soziala eratzen duen jardueran instalazio eta elementu hauek daukaten garrantzia kontuan hartuta, ezinbesteko aktibotzat hartzen dira eta, hori dela eta, bat etorrita Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 160 f) artikuluan xedatutakoarekin, Sozietatearen Ezohiko Batzar Orokorrak eztabaidatu beharko du esandako instalazio eta elementuak eskuratzeko erabakiak hartu ala ez.

Por otra parte, resulta también necesario señalar que, habida cuenta de la importancia que representan estas instalaciones y elementos en la actividad que conforma el objeto social de TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, se considera que las mismas son activos esenciales y, por tanto, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 160 f) del Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital, se somete a deliberación de la Junta General Extraordinaria de la Sociedad la adopción de los acuerdos que comportan la adquisición de las instalaciones y elementos antedichos.

Aurreko hori dena azaldu ondoren, Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak, TOLARGI S:L: Pertsona Bakarreko Sozietatearen Ezohiko Batzar Orokorrean eratua, aho batez hartzen ditu honako erabaki hauek:

Expuesto cuanto antecede, el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, constituido en Junta General Extraordinaria de TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, previa deliberación, adopta por unanimidad los siguientes acuerdos:

**LEHENA.-** Gauzatzea 2007ko abenduaren 31n, TOLARGI, S.L. Pertsona Bakarreko Sozietateak eta Tolosako Udalak sinatutako finantza-errentamenduko kontratuko zazpigarren klausulan xedatutako erosteko aukera eta, horren ondorioz, Tolosako Udalari erostea espedientean zerrendatutako elementu eta instalazioak, instalazio eta elementu horiek erosteko prezioa ekintza honen aurrean eta aipatutako finantza-errentamenduko kontratua betez osorik ordaindu dela ulerturik.

**PRIMERO.-** Ejercitar la opción de compra dispuesta en la cláusula séptima del contrato de arrendamiento financiero suscrito el 31 de diciembre de 2007 entre TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, y el Ayuntamiento de Tolosa y, por consiguiente, comprar y adquirir del Ayuntamiento de Tolosa los elementos e instalaciones relacionados en el expediente, entendiéndose abonado el precio por la adquisición de las mismas en su totalidad con anterioridad a este acto y en ejecución del citado contrato de arrendamiento financiero.

**BIGARRENA.-** Ahalmena ematea Patxi Amantegi Zubiria Tolargi Sozietateko Kontseilariari, zuzenbidezkoa den guztian, hartutako erabakia gauzatu dezan, TOLARGI S.L. Pertsona Bakarreko Sozietatearen izenean, helburu horretarako nahitaezkoak diren gestio guztiak egin eta behar diren dokumentu publiko eta/edo pribatuak, baita akatsak ahal den gehien zuzentze

**SEGUNDO.-** Facultar tan ampliamente como en Derecho proceda al consejero de la Sociedad, Patxi Amantegi Zubiria para que, en nombre y representación de TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, ejecute el acuerdo adoptado, llevando a cabo todas aquellas gestiones que sean necesarias, otorgando al efecto cuantos documentos públicos y/o privados fueran precisos, incluso de subsanación o

edo konpontzekoak ere, emango dituelarik, eta, halaber, eskatzea, halakorik egin behar bada, dagokion Erregistro Publikoan inskripzio osoa edo partziala.

rectificación en los términos más amplios, así como solicitar, en su caso, la inscripción, total o parcial, en los Registros Públicos correspondientes.

**4. <u>Tolosako Udalaren energia elektrikoaren instalazio eta distribuzio elementuei dagokienez, Tolargik aurkeztutako erosketa aukeraren proposamenaren onarpena</u>.**

**4. <u>Aceptación de la opción de compra por parte de Tolargi de las instalaciones y elementos de distribución de energía eléctrica</u>.**

2007ko abenduaren 31n, TOLARGI, S.L. Pertsona Bakarreko Sozietateak eta Tolosako Udalak finantza-errentamenduko kontratu bat sinatu zuten. Kontratu horri jarraikiz Tolosako Udalak TOLARGI S.L. Pertsona Bakarreko Sozietateari ematen zion energia elektrikoaren banaketako elementu eta instalazioak. Espedienteko dokumentuan dator elementu eta instalazio horien zerrenda

Con fecha 31 de diciembre de 2007, TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, y el Ayuntamiento de Tolosa suscribieron un contrato de arrendamiento financiero en virtud del cual dicho Ayuntamiento cedía el uso a TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, de las instalaciones y elementos de distribución de energía eléctrica que se señalan en el expediente.

Finantza-errentamenduko kontratuak 8 urteko indarraldia zuen. Kontratu horren azken kuota 2015eko abenduaren 30ean ordaindu zen, eta egun horretarako erabat amortizatuta zegoen aipatutako instalazio eta elementuen eskuratze-kostua.

El contrato de arrendamiento financiero tenía una vigencia de ocho años. La última cuota del citado contrato se abonó el 30 de diciembre de 2015, habiéndose amortizado íntegramente a dicha fecha el coste de adquisición de las citadas instalaciones y elementos y los correspondientes intereses.

Aipatutako kontratu horren zazpigarren klausulak jasotzen du erosteko aukera-eskubide bat, TOLARGI S.L. Pertsona Bakarreko Sozietatearen alde, lehen azaldutako energia elektrikoa banatzeko elementu eta instalazioen gainean.

La cláusula séptima del referido contrato de arrendamiento financiero recoge un derecho de opción de compra en favor de TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, sobre las instalaciones y elementos de distribución de energía eléctrica antes expuestos.

Prezioari dagokionean, zazpigarren klausula horretan bertan hau adierazten da: «*el precio de compraventa será, el valor residual indicado en el “Desglose de Cartera”*». Azken kuota ordaindutakoan hondar-balioa zero euro denez gero, ulertu behar da elementu eta instalazioen salmentaren prezioa

En relación con el precio, en la misma cláusula séptima se señala que «*el precio de compraventa será, el valor residual indicado en el “Desglose de Cartera”*». Toda vez que, con el pago de la última cuota, el valor residual es de cero euros, se entiende que el precio por la venta de las instalaciones y elementos

ordainduta dagoela ekintza honen aurretik; beraz, aukera gauzatzeko une honetan, ez da diru-kopururik batere ordaindu behar.

se ha satisfecho con anterioridad a este acto, de forma que no procede, en este momento de ejercicio de la opción, abonar importe alguno.

TOLARGI, S.L. Pertsona Bakarreko Sozietatearen Ezohiko Batzar Orokorrak, finantza-errentamenduko zazpigarren klausula horretan xedatutakoa betez, gaurko egunez erabaki du lehen esandako elementu eta instalazioak erosteko aukera-eskubidea gauzatzea, beroien jabetza osoa eskuratzeko xedez.

La Junta General Extraordinaria de TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, en ejecución de lo dispuesto en la citada cláusula séptima del contrato de arrendamiento financiero, ha adoptado el día de hoy el acuerdo de ejercitar el derecho a optar por la compra de los elementos e instalaciones antedichos con el fin de adquirir la plena propiedad de los mismos.

Hori dela-eta, komeni da hau esatea: behin eta berriz aipatzen ari garen elementu eta instalazioak erabilera publikotik kendu ziren eta beren kalifikazioa aldatu zen Tolosako Udaleko 2008ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuraren erabakiz. Erabaki horri jarraikiz, instalazioak eta elementuak pasa ziren ondare-ondasunen kalifikaziora izatera, eta kalifikazio eta egoera hori bera dute gaur egun. 2008ko martxoaren 14ko Osoko Bilkura horretan bertan ere onartu zen finantza-errentamenduko kontratua bera eta, beraz, lagapena ere bai, eta espediente hartan ondarearen gaineko araudiak agintzen dituen izapideak bideratu ziren.

A este respecto, conviene señalar que las instalaciones y elementos de continua referencia se desafectaron del uso público y se alteró su calificación por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Tolosa de 14 de marzo de 2008. En virtud de dicho acuerdo, las instalaciones y elementos pasaron a tener la condición de bienes patrimoniales, calificación y situación patrimonial que se mantienen en la actualidad. En la misma sesión del Pleno de 14 de marzo de 2008 también se aprobó el propio contrato de arrendamiento financiero y, por consiguiente, la cesión, habiéndose evacuado en aquel expediente los trámites que impone la normativa patrimonial a estos efectos

Horregatik denagatik, Udaleko Osoko Bilkurak

Por todo ello, el Pleno

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

**<u>LEHENA</u>.-** Onartzea TOLARGI S.L: Pertsona Bakarreko Sozietateak burututako erosteko aukeraren gauzatzea, 2007ko abenduaren 31n, TOLARGI, S.L. Pertsona Bakarreko Sozietateak, eta Tolosako Udalak sinatutako finantza-errentamenduko kontratuko zazpigarren klausulan xedatutakoari betez eta, horri jarraikiz, TOLARGI, S.L. Pertsona Bakarreko

**<u>PRIMERO</u>.-** Aceptar el ejercicio de la opción de compra verificado por TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, en ejecución de lo dispuesto en la cláusula séptima del contrato de arrendamiento financiero suscrito el 31 de diciembre de 2007 entre TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal, y el Ayuntamiento de Tolosa y, en su virtud, vender y transmitir a TOLARGI, S.L.,

Sozietateari saldu eta eskualdatzea espedientean zerrendatutako elementu eta instalazioak, ekintza honen aurrean eta aipatutako finantza-errentamenduko kontratua betez osorik ordaindu delarik instalazio eta elementu horien salmentagatiko prezioa.

Sociedad Unipersonal, los elementos e instalaciones relacionados en el expediente, habiéndose abonado en su totalidad el precio por la venta de las mismas con anterioridad a este acto y en ejecución del referido contrato de arrendamiento financiero.

**BIGARRENA.-** Aurreko erabakia erabat gauzatzeko behar diren izapideak betetzea, admnistrazio Kontseiluko Leehendairiari ahalmentzea emanez akordioa gauzatzeko behar diren ekintzatk burutzeko.

**SEGUNDO.-** Llevar a efecto los trámites que correspondan para proceder a la ejecución completa del acuerdo anterior, facultando al la Presidentea del Consejo de Administración de Tolargi para realizar cuantos actos sean necesarios para hacer efectivo el presente acuerdo..

**HIRUGARRENA.-** Aurreko erabakiak TOLARGI, S.L. Pertsona Bakarreko Sozietateari jakinaraztea

**TERCERO.-** Notificar los acuerdos precedentes a TOLARGI, S.L., Sociedad Unipersonal.

**5. 2017.urterako taxien tarifen onarpena.**

**5. Aprobación de las tarifas de taxi del 2017.**

Tolosaldea Garatzen, S.A.ren egoitzan 2016ko urriaren 21an, Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak bildu ziren Agitax eta G-Taxi taxi elkarteek 2017 urterako aurkeztutako tarifa proposamenak aztertzeko.

Kontuan izanik, Tolosa Garatzen S.A.ren proposamena eta 2016ko abenduaren 15eko Ogasun batzordearen aldeko diktamena Udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**Lehen.-** 2017urteko taxi tarifei igoerarik ez aplikatzea, hau da 2016koak mantentzea Ondorioz, 2017ko taxi tarifak honela geldituko lirateke:

- I Tarifa (lanegunetan 7tatik 22tara):
  Gutxieneko tarifa: 4,040208 euro
  Kilometroko: 0,991858 euro
  Itxarote ordua: 17,984887 euro

- II Tarifa (egunero 22tatik 7tara, eta larunbata, igande eta tokiko normatibak arautako jaiegunetan 7tatik 22tara):
  Gutxieneko tarifa: 4,559786 euro

Kilometroko: 1,508899 euro
Itxarote ordua: 26,492515 euro

**Bigarren.-** Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari bidaltzea.

**Hirugarren:** Tolosaldea Gartzen, S.A. entitateari akordioa jakinaraztea tramitatzeko.

## 6. Korreo kaleko 27an dagoen eraikina, Iturritza jauregia, zuzeneko erosketa egiteko onarpena.

## 6. Aprobación de la adquisición directa del edificio del Palacio Iturritza sito en korreo kalea 27.

### 1.- AURREKARIAK.

Iturritza jauregia, 450/1995 Dekretuaren arabera —urriaren 17koa, Tolosako Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendatzen duena-—, Sailkatutako Kultura Ondasun gisa Monumentu izendatzen da, Babes Berezia ezarriz.

Babes maila horrekin honako eraikin hauek azaltzen dira:

- Santa Maria eliza
- Idiaketz jauregia
- Atodo jauregia
- Gaztelako atea
- Iturriza edo Rekalde jauregia.

Multzo Monumentalaren Memorian horrela deskribatzen da Iturriza edo Rekalde jauregia:

“*El Palacio Rekalde es un magnífico edificio barroco, de planta rectangular y cubierta a dos aguas, con el caballete paralelo a la fachada principal, está situado entre medianeras y por ello la fachada principal es la única visible. El aparejo es de sillar en la planta baja, cercos de vanos y platabandas con ladrillo, al descubierto tras la última restauración, en los dos niveles superiores. Consta, en altura, de planta baja y dos más. La composición resalta aún más la belleza y calidad visual del edificio, con tres huecos rectangulares por planta, recercados todos ellos y distribuidos simétricamente. La planta baja ha sido alterada para albergar diferentes comercios (se han ampliado los huecos con grandes cristales y llamativos letreros).Cada planta se separa de la superior por medio de una platabanda lisa de piedra, otra más se ubica bajo la cubierta a modo de cornisa. Los sillares de la planta inferior, perfectamente escuadrados, no tiene la cara externa pulida. Si dejamos al margen los huecos de las planta baja, el resto se constituye en balcones. Hay un eje noble, el central, compuesto por acceso, balcón volado y balcón antepechado. El amplio acceso, con una puerta de madera tachonada, se abre a un zaguán. Tiene un recercado en relieve formado por pilastras en las jambas, rematadas por un grueso entablamento liso. Sobre él reposa un señorial balcón volado sobre firme pétreo moldurado y un barandado forjado, también tiene dos tirantes de refuerzo típicamente barrocos. El resto de huecos se constituye en balcones antepechados, con el antepecho de hierro forjado. Hay que reseñar el trabajo de los*

*canes de un alero con un vuelo algo pronunciado. También hay que destacar el trabajo del forjado en los barandados y de la madera en los balcones de la segunda planta, con un trabajo típicamente barroco en contraventanas y puertas. En la primera planta escoltando al balcón volado, hay dos escudos pétreos barrocos enfrentados. Son cuartelados y tienen las mismas armas. Están en buen estado, aunque sus tallas no son muy finas."*

Eraikinaren balore historikoa eta arkitektonikoa handia da eta, zentzu horretan, Administrazio ezberdinen ardura da patrimonio hori mantentzea.

Bestalde, 450/1995 Dekretuaren arabera eta Tolosako Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziaren arabera, Korreo kalearen, Letxuga kalearen eta Kale Nagusiaren arteko patioaren okupazioa ordenazioz kanpokoa da eta ezabatu egin behar da.

Eraikinaren datuak hauek dira:

- Orubearen azalera: 375,98 m²
- Eraikitako azalera: 782,50 m²
- Eraikinaren azalera: 375,98 m²

Eraikinaren egoera honakoa da:

- Egitura : erdipurdikoa
- Teilatua: txarra
- Aurrealdeko fatxada : Ona
- Atzealdeko fatxada : Txarra
- Patioa : txarra

2016. urteko Katastro balorea ondorengoa da:

Beheko solairua (ordenazioz kanpo), biltegia, azalera 119,00 m²= 66.989,96 euro
1. solairua, lokal komertziala, azalera 109,00 m²= 263.328,02 euro
1. solairua, etxebizitza, azalera 74,00m²= 74.472,57 euro
1. solairua, trastelekua, azalera 29,00 m² = 6.501,79 euro
1. solairua (ordenazioz kanpo), biltegia, azalera 129,27m²= 111.732,24 euro
2. solairua, etxebizitza, azalera 116,00 m²= 102.786,42 euro
2. solairua, trastelekua, azalera 10 m²= 2.967,52 euro
3. solairua, trastelekua, azalera 168,00 m²= 29.934,07 euro

GUZTIRA: 658.712,59 euro.

**2.- EROSTEKO ARRAZOIAK.**

Horrelako eraikinak mantentzea oso zaila da jabeentzat, izan ere, duten babes maila kontuan izanik ezin dira aldaketa garrantzitsuak egin, ez egungo fatxadan, ezta distribuzioan ere, eta, ondorioz, etxebizitza erabilera emateko ez dira egokiak.

Horrelako eraikinek izaera publikoa izan behar dute, baldin eta etxebizitza erabilerako ez badira egokiak. Batzuetan, Atodo jauregian, adibidez, etxebizitza erabilera ematea ez da zaila, baina, beste batzuetan, Iturritza jauregiaren moduan, oso zaila da etxebizitza erabilera ematea.

Gauzak horrela, eraikin honen etorkizunak erabilera publikoari lotuta egon beharko luke.

Erabilera publikoa ematea lehen aukera bada ere, kontuan izan behar da erosketa prezioa ere “parametro” arrunt batzuen barruan egon behar dela.

Azkenik, horrelako eraikinek izaera publikoa izan behar dute, baina, horretarako, erabilera jakin bat izan behar dute eta, horretarako, plangintza bat izan behar du Udalak erabilera hori jartzeko.

Momentu honetan, ez dago plangintza zehatz bat erabilera publiko bat jartzeko eraikinean, baina aukeran badaude hainbat erabilera jar litezkeenak: Erretengibelen bulegoak, Kulturari lotutako erabilerak (arte tailerrak, haurren liburutegia, etab). Aurrean esan bezala, Udalak ez du garatu eraikinen erabilerarako plangintzarik, baina bere asmoa da, datorren urtean, Udalak erabilerarako dituen azpiegituren (eraikinen) berrantolaketaren azterketa sakona egitea eta proposamen berriak lantzea beharrezkoak diren eztabaida eta partaidetza prozesuak abian jarriz, gabeziak baititu Udalak bere zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinetan (leku txikiegiak, segurtasun arazoak, hezetasun arazoak, antolaketa arazoak…)

Beraz, nahiz eta gaur egun ez egon zehaztuta eraikinaren erabileraren gaia, esan liteke prezioan dagoela gakoa erosketaren gaia erabakitzeko, izan ere, prezioa altua izango balitz, ez legoke arrazoirik eraikina erosteko; aldiz, prezio erakargarria izango balitz, nahiz eta erabilera oraindik zehaztu gabe egon, nahikoa izango litzateke eraikina erosteko. Kontuan izan behar da horrelako aukerak ezin direla galdu.

Badaude beste arrazoi batzuk ere erosketarekin aurrera egitea gomendatzen dutenak:

- Kale Nagusiko eraikin batzuk Iturritza jauregiko atzealdeko fatxadatik bi metrotara daude. Eraikina Udalarena izango balitz, patioaren okupazioa kentzea askoz ere errazagoa izango litzateke. Horrela, patioaren okupazioa kenduta, bi gauza lortuko lirateke: batetik, patioari erabilera publikoa ematea, eta, bestetik, Kale Nagusiko eraikinei duintasuna ematea.
- Eusko Jaurlaritzarekin egindako kontsulten arabera, hurrengo urteetan ere diru-laguntzak emango dira kultur ondarea zaintzeko eta babesteko, eta, ondorioz, Iturriyza jauregian obrak egiteko bi diru-laguntza mota jaso daitezke:

  - Eranskin diskordanteak kentzeko obrak finantzatzea.
  - Erabilera publikoa emateko obrak finantzatzea

**3.- ERAIKINAREN BALORAZIOA.**

Erakinaren balorazioa ondorengoa irizpideak jarraituz egin da:

- Eraikina bitan banatu da: alde batetik, ordenazio barruan dagoen eraikina eta, bestetik, ordenazioz kanpo dagoena.
- Erabili diren salmenta prezioak zehazterakoan zuhurtzia printzipioa erabili da.
- Lokal komertziala ondo dago eta egun jarduera bat dago bertan. Beraz, ez da erabili “balore residual”eko formula, baizik eta konparaketa metodoa. Lokalaren kokapena hartuta, prezioa Tolosako Alde Zaharreko batez bestekoa baino handiagoa izan behar da. Kontuan izanda Tolosako Alde Zaharreko batez besteko prezioa 1.200 euro metro koadrokoa dela, kasu honetan 1.400 eurokoa izango da.
- Ordenazio barruan dagoen eraikinaren lehenengo eta bigarrengo solairuek etxebizitza

erabilera dute bere osotasunean, baina ez daude egokituta erabilera horretarako. Egokitzeko obrak garrantzitsuak direnez, "balore residualeko" formula erabili da. Horretarako, salmenta prezioa 3.600 euro metro koadroko erabili da. Prezioa egokitzat hartzen da ikusita obra berriko prezioak Tolosan. Hala ere, eraikitzeko prezioa batez bestekoaren % 40 handiagoa izango da, kontuan izanda eraikin horren babes maila dela eta, egokitze obrak garestiagoak izango direla. Tolosan eraikitzeko batez besteko prezioa 1.000 eurokoa da metro koadroko, eta kasu honetan, 1.400 eurokoa izango da. Gainera, kontuan hartu da sustatzailearen irabaziak salmentaren % 40 izango direla, horrelako sustapenak egitea zaila baita. Horrela, prezioa

BR: (SPx/(1-0,40))- CC : ((3.600*)1-0,40)-1400 = 760 € metro koadroko

- Teilatu azpiko ganbararen balioa oso baxua da, ez baitauka erabiltzeko aukera handirik. Alde batetik, altuerak direla-eta ezin daiteke erdia baino gehiago erabili, eta, beraz, azaleraren erdia hartu da kontuan, eta, metro koadroko prezioa oso baxua jarri da: 100 euro.

Gauzak horrela, ordenazio barruan dagoen eraikinaren balorazioa ondorengoa da:

- Behe solairua : 109 m² x 1400 €/m²= 152.600,00 euro
- Lehenengo solairua = 103 m² x 760 €/m² = 78.280,00 euro
- Bigarren solairua = 126 m² x 760 €/m² = 95.760,00 euro
- Teilatupea : 84 m² erabilgarriak x 100€/m² = 8.400,00 euro

**GUZTIRA = 335.040,00 euro**

Patiora ematen duen eraikinaren balorazioa. Parte honen balorazioa egiteko, eta, kontuan izanik eraitsi egin behar dela, egungo erabileraren arabera baloratu da, hau da, biltegi modura. Horretarako, prezioa 350 euro metro koadroko izango da.

Balorazioa ondorengo da :

- Behe solairua 119,00 m² x 350 € /m² = 41.650,00 euro
- Lehenengo solairua 129,27 m² x 350 €/m²= 45.244,50 euro

**GUZTIRA : 86.894,50 Euro**

Beraz, eraikin guztiaren balorea: **335.040,00 + 86.894,50= <u>421.934,50 euro</u>**

**4.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA**

4.I.- Salerosketako kontratuak ondoren zehazten den Dekretuaren aplikazio-esparrutik kanpo daude, izan ere, kontratu pribatuaren izaera dute eta ondareari buruzko legeria bete behar dute (3/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, sektore publikoko kontratuen Legeko testu bategina onartzen duena; 4.1.p) artikulua).

4.2.- **Zuzeneko erosketa** salbuespenezko prozedura da, izan ere, arau orokorra lehiaketa edo lizitazio murriztua da, eta justifikatu egin behar da ondasunaren egokitasun berezia, hura zuzenean erosteko (33/2033 Legea, administrazio publikoen ondareari buruzkoa).

Kasu honetan, Hirigintzako buruak txostena egin du eta bertan ondorioztatu du justifikatuta dagoela ondasun hau erostea, ondorengo arrazoi hauengatik:

- Higiezin hau kultura ondasuntzat hartzen da, berezia duena, Tolosako Hirigune Historikoko Monumentu Multzo izendapenak jaso bezala. Euskal kultur ondareari buruzko Legearen arabera, botere publikoen funtzio eta eskumenen artean dago euskal kultur ondarearen osotasunari eustea, eta hura babesteko, aberasteko eta zabaltzeko sustatze-lana egingo dute, eta behar den eraginkortasunez jardungo dute, bermatzeko oraingo eta ondorengo belaunaldiek aukera izango dutela hura ezagutzeko, ulertzeko eta hartaz gozatzeko. Gaur egun, eraikinak ez du inongo erabilerarik eta ia ezinezkoa da ekimen pribatuak eraikinaren mantenimendua bermatzea, izan ere, bizitegi-erabilera du, baina erabilera hori ez da errentagarria, eraikinaren banaketara ezin baita egokitu. Horrelako eraikinek, kontserbatu ahal izateko, orokorrean, balioan jarriko dituen erabilera publikoa izan behar dute.
- Eraikinaren zati bat ordenazioz kanpo dago eta bota egin behar da, beharrezko osasungarritasun-baldintzak izan ditzaten patioak eta patio horretara fatxada duten eraikinek.

- Horrela, bi helburu lortuko dira: batetik, eraikina birgaitu eta balioan jartzea, eta, bestetik, etxadi-patioa hustea, Tolosako Alde Zaharra birgaitzeko Plan Bereziak aurreikusi bezala.

Arrazoi horiek justifikatzen dute eraikinaren zuzeneko erosketa.

4.3.- Euskal kultur ondareari buruzko Legeak, 25. artikuluan, honela dio:

"*25. Atala:*

***1.*** Zermugatutako eta zerrendatutako kultur ondasunik salsu nahi izatekotan, Euskao Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailari modu sinistagarriz eman beharko zaio jakitera, salmenta hori zer prezio eta baldintzatan egin nahi den adieraziz, eroslea nor den ere esan beharko dela. Enkante-antolatzaileek, era berean eta behar hainbateko lehentasunez eman beharko dituzte jakitera euskal kutur ondarea osatzen duen edozein ondasun inorentzakotu asmoz egingo diren nornahirentzako enkanteak.

***2.*** Gaitasunaren jabe den Eusko Jaurlaritzako ihardutze-sailak, bere alde nahiz berri-erakundeen edo irabazte-xederik gabeko kultur alorrekoen alde, bi hilabeteko epean, haztaketarako eskubideaz baliatu ahal izango da, erabakitako prezioa ordaintzera bere burua behartuz.

***3.*** Eusko Jaurlaritzak haztaketarako eskubideaz baliatu ez dadin eta, salmenta gaztigatutako baldintzetan gauzatu ez bada, edo hasierako baldintzak aldatu ez arren, akuraketa gauzatu gabe urtebete igaro bada, inorentzakotzailea, 1. zatian ohartemandako neurrietan, berriro behartuta geratuko da.

***4.*** Banan-banan zermugatu gabeko monumentu-multzoetan sartutako ondasunak direnean, eskubide horretaz baliatu, multzoaren babes-jaurpidean txit garrantzizkotzat adierazi direnekiko soilik bailatu ahal izango da.

***5.*** Saltzeko asmoa eta horretako baldintzak behar denez jakinarazi ez badira, egitekoa den salmentaren berri modu sinistagarriz izandako egunetik hasi eta bi hiletako epean, haztaketa-eskubiderako ohartemandako neurri berberetan, atzera-indarrez jabetzeko eskubideaz baliatu ahal izango da."

Azaldutakoaren arabera, finkaren jabeak/saltzaileak modu sinesgarrian jakinarazi behar dio Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailari saltzeko asmoa, bertan adierazita prezioa, baldintzak eta ondarea Tolosako Udalak erosi behar duela.

Salerosketa ezin izango da egin, harik eta espedientean modu sinesgarrian egiaztatu arte Kultura Sailak uko egiten diola tanteo-eskubideari, edo bi hilabete igaro arte Kultura Sailak eskubide hori erabili gabe, Sail horri jakinarazpena egiten zaionetik kontatzen hasita,.

5.- KARGA-ZIURTAGIRIA

Espedientean jasota dago Erregistroko karga-ziurtagiria, eta hortik ondorioztatzen da finkek kargarik eta zamarik ez dutela.

6.- ESKAINITAKO KONTRATUKO KLAUSULAK

Hauexek dira kontratuko klausulak:

***MINUTA PARA LA COMPRAVENTA DE LOCALES Y VIVIENDAS EN EL PALACIO ITURRITZA***

***DE UNA PARTE:*** *DOÑA OLATZ PEON ORMAZABAL, mayor de edad y con D.N.I. nº 34.108.801-P*

***Y DE LA OTRA****: DON JOSE MIGUEL IRUIÑ BELAUNZARAN, mayor de edad, casado, vecino de Tolosa y D.N.I. nº 15.970.033-Y.*

***INTERVIENEN***

*Dña. Olatz Peon Ormazabal en su condición de Alcaldesa-Presidente del ayuntamiento de Tolosa, facultada para el otorgamiento de la presente compraventa en virtud del acuerdo plenario de fecha 29 de diciembre de 2.016 y en uso de las facultades que le vienen atribuidas por la Disposición Adicional Segunda RDLeg. 3/2.011, de 14 de noviembre, TR de la Ley de Contratos del Sector Público, por la que se deroga la letra p) del artículo 21.1. de la Ley 7/1.985, de Bases de Régimen Local.*

*(cita, art. 11 RBEL; y 116.4. y 6. De la Ley 3/2003 de Patrimonio de las AAPP)*

*Don Jose Miguel Iruiñ Belaunzaran, en su propio nombre y derecho.*

***ANTECEDENTES***

***Primero****.-*

*Que Don Jose Miguel Iruiñ Belaunzaran es titular de seis fincas registrales de la siguiente descripción:*

*1.- Número Uno. Local en planta baja, que linda: Norte y Sur, generales de la casa; Este, casa número cuatro de la Plaza Verdura; y Oeste, departamento número dos, portal y caja de*

*escaleras. Tiene ciento nueve metros cuadrados (109 m2) útiles. Cuota de participación: treinta por ciento (30%). El inmueble al que pertenece la finca de este número, ha sido declarado “Monumento” con la categoría de Bien Cultural Calificado, por su singular relevancia, sujeto a protección especial.*

*Inscripción: Al Tomo 1761, Libro 279, folio 17, Finca nº 13.678.*

*Referencia Catastral: 7576227 (Finca 97914B)*

*2.- NUmero Dos. Local totalmente interior en planta baja destinado a almacén, que linda: Norte, hueco de escalera; Sur, general de la casa a patio interior de manzana; Este, departamento uno; y Oeste, casa número veinticinco de la calle Correo. Se accede a este departamento por el portal y caja de escalera, sin acceso exterior. Tiene ciento diecinueve metros cuadrados (119 m2). Cuota de participación: diez por ciento (10%). El inmueble al que pertenece la finca de este número, ha sido declarado “Monumento” con la categoría de Bien Cultural Calificado, por su singular relevancia, sujeto a protección especial.*

*Inscripción: Al Tomo 1761, Libro 279, folio 20, Finca nº 13.679.*

*Referencia Catastral: 7576227 (Finca 5161416L)*

*4.- Número Cuatro. Local en planta primera, destinado a almacén y exposición del departamento número uno, que linda: Norte y Sur, generales de la casa. Este, casa número cuatro de la Plaza Verdura, y Oeste, hueco de escaleras y departamento número cinco y su anejo. Tiene ciento veintinueve metros veintisiete decímetros cuadrados (129,27 m2) útiles. Cuota de participación: quince por ciento (15%). El inmueble al que pertenece la finca de este número, ha sido declarado “Monumento” con la categoría de Bien Cultural Calificado, por su singular relevancia, sujeto a protección especial.*

*Inscripción: Al Tomo 1761, Libro 279, folio 27, Finca nº 13.681.*

*Referencia Catastral: 7576227 (Finca 97918K)*

*5.- Número Cinco. Vivienda en piso primero, que linda: Norte, hueco de escaleras; Sur, general de la casa; Este, departamento cuatro, y Oeste, casa número veinticinco de la calle Correo. Tiene setenta y cuatro metros cuadrados (74 m2). Le pertenece un anejo de veintinueve metros cuadrados (29 m2) en la misma planta, que linda: Norte, general de la casa; Sur, hueco de escaleras; Este, departamento cuatro, y Oeste, casa número veinticinco de la calle Correo. Cuota de participación: diez por ciento (10%). El inmueble al que pertenece la finca de este número, ha sido declarado “Monumento” con la categoría de Bien Cultural Calificado, por su singular relevancia, sujeto a protección especial.*

*Inscripción: Al Tomo 1761, Libro 279, folio 29, Finca nº 13.682.*

*Referencia Catastral: 7576227 (Finca 97919S)*

*6.- Número Seis. Vivienda en piso segundo, que linda: Norte y sur, generales de la casa; Este, casa número cuatro de la Plaza Verdura, y Oeste, hueco de escaleras y casa número veinticinco de la calle Correo. Tiene ciento dieciséis metros cuadrados (116 m2) útiles. Le pertenece un*

*anejo de diez metros cuadrados (10 m2) útiles, en la misma planta que linda: Norte y Este, hueco de escalera; Sur, general de la casa, y Oeste, casa número veinticinco de la calle Correo. Cuota de participación: dieciocho por ciento (18%). El inmueble al que pertenece la finca de este número, ha sido declarado "Monumento" con la categoría de Bien Cultural Calificado, por su singular relevancia, sujeto a protección especial.*

*Inscripción: Al Tomo 1761, Libro 279, folio 32, Finca nº 13.683.*

*Referencia Catastral: 7576227 (Finca 97917 C)*

*7.- Número siete. Desván en planta tercera y última, que linda: Norte y Sur, generales de la casa; Este, casa número cuatro de la Plaza Verdura, y Oeste, casa número veinticinco de la calle Correo. Tiene ciento sesenta y ocho metros cuadrados (168 m2) útiles. Cuota de participación: **diez** por ciento (**10**%). El inmueble al que pertenece la finca de este número, ha sido declarado "Monumento" con la categoría de Bien Cultural Calificado, por su singular relevancia, sujeto a protección especial.*

*Inscripción: Al Tomo 1761, Libro 279, folio 35, Finca nº 13.684.*

*Referencia Catastral: 7576227 (Finca 97922 J)*

*Título: Adjudicación al fallecimiento de su padre D. Jose Antonio Iruiñ Peña, en escritura autorizada ante el Notario de Tolosa D. Pedro Elosegui el 13 de mayo de 2.010.*

*Cargas: Todas ellas, libres de cargas y arrendamientos.*

*Todas las fincas descritas forman parte de la casa señalada con el nº 27 de Korreo kalea de Tolosa que se corresponde con el Palacio Rekalde o Iturritza que es Finca Registral nº 74 de Tolosa, al Tomo 1.761, libro 279, Folio 13, y dispone de la siguiente descripción:*

"*Casa señalada actualmente con el número veintisiete de la calle Correo, de esta villa de Tolosa, cuyo solar mide cuatro mil setecientos ochenta y cinco pies cuadrados, o sean trescientos setenta y uno y medio metros cuadrados, linda por Norte o sea su frente, con dicha calle; por Este o izquierda, con casa que fue de Don Juan Bautista Olano, hoy de sucesores de Don Salustiano Mocoroa; por Oeste o derecha, con la casa número catorce, hoy veinticinco, y por Sur o espalda, con una cárcava."*

*La cuota de participación conjunta de las fincas representan el 93% del total del solar sobre el que se levante el edificio.*

***Segundo**.-*

